

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

Homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten biztanleentzako 2025. urterako dirulaguntzen deialdia. BDNS (Identif.): 835492.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/835492>).

2025KO MAIATZAREN 26KO 2025/2951 ZENBAKIDUN ALKATETZA DEKRETUAREN ERABAKIA, HOMOLOGATURIK DAUDEN EUSKALTEGI EDOTA BARNETEGIETAN HELDUENTZAKO EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZE IKASTAROAK EGITEN DITUZTEN BERMEOKO BIZTANLEENTZAKO 2025. URTERAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEN ETA ZABALTZEN DUENA

Lehenengoa. — Eskatzaileak

Onuradun izango dira homologaturiko euskaltegi edo barnetegietan euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten ari diren pertsona fisikoak.

Dirulaguntza horietatik kanpo geratuko dira graduondoko, doktorego, master eta karrerarako ikastaroak. Halaber, ez dira diruz lagunduko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak arauturiko irakaskuntza (Hizkuntza Eskola Ofizialak, esaterako), ezta beste erakunde batek antolatutako ikastaroak ere, esaterako IRALE eta HAEERen bidezko ikastaroak.

Bigarrena

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak honako hauek dira:

- Oinarrizko Errenta edo Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen dituzten eskatzaileentzat: gehienez, matrikularen %70.
- Dirulaguntzaren xede den ikasturte osoan langabezian dauden langabetuentzat: gehienez, matrikularen %60. Zati batean bada, modu proportzionalean aplikatuko da.
- Gainerako ikasleentzat: gehienez, matrikularen %50

Ikasle bakoitzak, gehienez, 300 euroko dirulaguntza jaso ahal izango du ikastaro bakoitzeko.

Urtean zehar egin daitezkeen ikastaro guztiengatik ikasle bakoitzak, gehienez, 500 euro jaso ahal izango ditu.

Hirugarrena. — Oinarri Arautzaileak

Deialdi hau Bermeoko Udalaren 2025eko aurrekontuetan jasota dago eta 2023ko maiatzaren 12an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2023ko martxoaren 31ko Osoko Bilkurako 7. puntuan onartutako 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan. Oinarri horiek, deialdi hau eta eredu normalizatuak Bermeoko Udalaren Webgunetik jaitsi ahal izango dira:

- <https://www.bermeo.eus/1304.html>

Laugarrena

Zenbatekoa, guztira 5.000 euro, 01400-33540-4810315 aurrekontu-partidaren kontura.

Bosgarrena

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, hain zuzen 2025eko urrian.

**Seigarrena.— Balorazio irizpide zehatzak**

- Bermeon erroldatuta egotea.
- Matrikula egiten den egunetik ikastaroa bukatzen denera arte emaniko orduen %80 edo gorako asistentzia edukitzea. Nahitaezko betebeharrengatik ez joatea edo gaixotasun-bajak erakunde eskudunak justifikatu beharko ditu.
- Hasten den ikastaroa amaitzea. Ezin da urratsa edo euskaltegia aldatu erakunde eskudunaren baimenik izan gabe.
- Dirulaguntzaren emakida dakarren baldintzak betetzen direla egiaztatze aldera behar diren jarduketak egiten baimentzea eta Bermeoko Udalak eskatzen dion informazio guztia ematea.
- Bermeoko Udalarekin zorrik ez izatea.

Bermeon, 2025eko ekainaren 6an.— Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly